EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KIROL FEDERAZIOEN HAUTESKUNDEAK ARAUTZEKO PROZESUAK ERREGULATZEN DITUEN AGINDUAREN ANALISIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

2017ko irailaren 15eko eta 2017ko azaroaren 9ko saioetatik ateratako proposamenak

Sarrera

- Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez, saio bat egin zuen 2017ko irailaren 15ean, eta bertan hainbat kideek parte hartu zuten, guztiak ere EAEko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuekin zuzenean edo zeharka lotuak: Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza, Euskal Federazioen Batasuna, kirol-federazioetako lurralde-elkarteak eta bestelako eragile publiko eta pribatuak.

- 2017ko azaroaren 9an, beste saio bat egin zen, eta prozesu horiekin lotutako hirurogei pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, HAUTESKUNDE-PROZESUEN ANALISIAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK Kirol Federazioen Kudeaketari buruzko IV. Jardunaldien barruan.

- Saio bietako hausnarketak, iradokizunak eta ekarpenak bateratu dira, federazioen hauteskunde-prozesuak hobetzeko asmoz, eta bateratze hori izan da proiektuaren muina.

Kirol-Jarduera esanguratsua

- Indarrean dagoen 2012ko otsailaren 19ko Aginduak eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak ezartzen dute klubek eta kirol-elkarteek kirol-jarduera esanguratsua izan behar dutela Federazioen Batzar Orokorraren kide izateko. Halaber, jarduera hori federazioaren barne-arautegian zehaztu behar da, eta elementu oinarrizkotzat (eta bakartzat) eskatzen da "*kirolarien gutxieneko lizentzia kopurua*" ezarri behar dela.

- Saioetan adierazi zenez, federazio askotan gai gatazkatsua ez den arren, beste batzuetan liskar handiak sortzen ditu.

- Bileretan, zenbait aukera proposatu ziren:
  - Dekretua eta Agindua erreformatzea eta egungo eredua Espainiako kirol-federazioei buruzko abenduaren 18ko ECD/2764/2015 Aginduaren eredura egokitzea, lehiaketa ofizialetan parte-hartzean oinarritzen baita.
  - Horrez gain, onartzea egutegi ofizialeko proben antolakuntza kirol-jarduera erabakigarritzat har dadila.

- Saioetan adierazi zen agian ezingo dela eredu bakarra ezarri, eta arretaz aztertu beharko litzatekeela Aginduaren arauketa publikoak aukera desberdinak emateko posibilitatea, kirol-federazio bakoitzak haren jarduerara eta kirol-antolakuntzara hobekien egokitzen zaion aukera hauta dezan.

Euskal Federazioen Batzarreko kide izateko baldintzak

- Saioetan mahaigaineratu zen ea komenigarria den euskal federazio bateko Batzar Orokorreko kide izatea baldintzatzat ezartzea lehiaketa ofizialetan parte hartzeko. Dena dela, saioetan agerian jarri zen, halaber, lurralde-federazioei eragiten dieten erabakiak ere hartzen dituztela euskal federazioek.

- Horregatik, ondorioztatu zen agian ez dela orain eskatzen dena baino gehiago eskatu behar —hau da, dagokion lurraldeko Batzar Orokorraren kide izatea aurrena—.

- Edonola ere, egungo arauketaren ordezko beste aukera bat ezarri ahal izateko, Aginduaz gain, 16/2006 Dekretua ere erreformatu behar da. Izan ere, aipatutako Dekretuaren arabera, dagozkien estamentuen ordezkari gisa hautatu diren batzarkideek eratu behar dute euskal federazioen Batzar Orokorra. Horrenbestez, Dekretua aldatzen ez den bitartean, ezin da Agindua aldatu.

Euskal federazioen zuzendaritza-batzordeak

- Saioetan zenbait proposamen egin ziren, lurralde-federazioen lehendakariak ez dezan ezinbestean euskal federazioen zuzendaritza-batzordeetan parte hartu beharrik izan.

- Aitzitik, saioetan egiaztatu zen ezin zela Agindua aldatu 16/2006 Dekretua aldatu gabe. Izan ere, Dekretuak ezartzen du lurralde-federazioen lehendakariak berezko kideak direla, eta hori indargabetutako 265/1990 Dekretuan xedatuta zegoen dagoeneko.

- 16/2006 Dekretua alda daitekeen eztabaidatzeko, honako aukera hauek proposatu dira, besteak beste:
  - Lurralde-federazioen lehendakariek euskal federazioen zuzendaritza-batzordeetan iritzia eman ahal izatea, baina botorik ez edukitzea.
  - Lurralde-federazioen lehendakariek iritzia eman ahal izatea haien lurralde-federazioari zuzenean eragiten dieten gaietan.
  - Lurralde-federazioen lehendakariek ez dezatela ez iritzirik ez botorik emateko aukerarik izan; hau da, ez daitezela Euskal Federazioaren Zuzendaritza Batzordeko kide izan, nahiz eta horietako zenbait edo denak gonbida daitezkeen, gai-zerrendako punturen batek lurralde-federazio guztiei edo zenbaiti zuzenean eragiten dienean.

Hauteskunde Batzordeak

- Saioetan federazioek aitortu zuten badirela hauteskunde-batzordeetan ere errepikatzen diren zenbait arazo:
  - Ez dago neutraltasunik
  - Batzordeak osatzen dituzten pertsonek ez daukate arazoak ebazteko gutxieneko prestakuntzarik
  - Zozketak egiten direnean, izendatutako pertsonetako askok ez dute funtzioa bere gain hartzen
  - Eta abar.

- Saioetan azaldu zen ez dela zertan berariazko arauketa publikoa (Agindua eta/edo Dekretua) ezarri behar arazo horiei irtenbidea emateko, kirol-federazioek horretarako gaitasun nahikoa baitute.

- Halaber, saioetan argitu zen badirela kirol-federazioei laguntzeko zenbait proposamen:
  - Hauteskunde-batzordeak pertsona bakarrekoak izatea
  - Federazioez kanpoko profesionalek gauzatzea funtzio hori
  - Kirol-federazioen elkarteek egiaztatutako profesional-talde bat izendatzea. Federazio guztien esanetara egongo lirateke profesional horiek, eta zuzenean hauta litezke, zozketa egin edo izendapenak txandakatu.

Euskal federazioen hauteskundeen epea

- Saioetan esan zen zenbaitetan euskal federazioen hauteskunde-prozesuak urte olinpikoa gainditzen dutela (hori da hasiera batean hauteskunde-prozesu guztietan aurreikusitako epea). Ondorioz, aurrekontuak eta lehiaketa-egutegiak ez dira azken hiruhilekoan burutzen, eta Zuzendaritza Batzordea mugatuta geratzen da.

- Proposatu zen lurralde-federazioetako hauteskundeak lehen seihilekoan egitea ezinbestean, eta euskal federazioetakoak, berriz, bigarren seihilekoan.

- Dena den, kasu horretan ere, euskal federazioetako zuzendaritza-batzorde berriek nekez izango zuten batzar orokorrei aurrekontuen eta egutegien onarpen-proposamena azken hiruhilekoan aurkezteko eta proposamenak epe barruan onartzeko denbora nahikoa.

Boto haztatua

- Saioetan aditzera eman zen boto haztatuaren irismenari eta osaerari buruzko zalantzak daudela. Hauteskunde-prozesuetan aplikatzen da soilik? Batzarren bilera guztietan aplikatzen da?

- Argitu zen, 2012ko Aginduaz geroztik, argi dagoela araua batzar orokorren ohiko eta ezohiko saio guztiei aplikatzen zaiela, haien lau urteko agintaldian zehar.

- Halaber, azaldu zen boto haztatua erabat bateragarria dela botoak isilpekoak izatearekin. Irtenbide sinpleena da klub bakoitzak boto adina gutun-azal edukitzea. Gutun-azalak berdin-berdinak direnez, ezin dira botoak bereizi, boto-ontzietan sartzen direnean edo gutun-azalak ireki eta botoak zenbatzen direnean.

Boto elektronikoa

- Aginduan boto elektronikoa txertatzeko aukera mahaigaineratu zen ere, partaidetza-kuota txikiak baitaude, batez ere pertsona fisikoen estamentuetan.

- Saioetan jakinarazi zen boto elektronikoa ezartzeko aukera lurralde-federazioei eragiten gaia dela argi eta garbi, batik bat pertsona fisikoen (kirolariak, epaileak, arbitroak eta teknikariak) partaidetzari dagokionean.

- Bestalde, boto elektronikoaren sistema ezartzea garestia izan liteke eta federazioetako askok ezingo lukete hartu beren gain. Horregatik, proposatu zen borondatezkoa izan dadila, eta, kasu horretan, Aginduan sar zitezela, borondatezko izaerarekin batera, batera botoa emateko ezaugarriak, bikoiztasunak saihesteko prozedurak etab.

Estamentuen datuak egiaztatzea euskal federazioen hauteskunde-prozesuetan

- Saioetan proposatu zen beharrezkoa zela datuak euskal federazioen hauteskunde-prozesuetan egiaztatzearen gaia argitzea Aginduan.

- Saioetan azaldu zen lurralde-federazio bakoitzaren errolden eta euskal erakunde bakoitzaren errolden artean desberdindu behar dela. Horietako bakoitzak dagokion hauteskunde-prozesuen berezko erroldak erabili behar ditu. Euskal federazioen errolda argia da, lurralde-federazio bakoitzaren batzarkideen batura delako.

- Arazoak estamentu bakoitzaren ordezkari kopurua lurralde-federazioen artean egotzi behar denean baino ez dira sortzen. Indarreko Aginduan ezarritakoaren arabera, dagokion euskal federazioak "*bere erroldak, artxiboak edo fitxategiak erabiliko ditu"*. Horrenbestez, baliteke lurralde bakoitzeko erroldak, artxiboak edo fitxategiak bat ez etortzea dagokion euskal federazioak dituenekin.

Datu pertsonalen babesa

- Agindua aldatzea proposatu zen, irizten zaiolako hauteskunde-erroldak osatzen dituzten pertsonen datuak federazioen webguneetan argitaratzeko obligazioa datuak babesteari buruzko legediaren kontrakoa izan daitekeela.

- Saioetan ikusi da Aginduaren egungo arauketa ez dela aldatu behar, federazioek ez dutelako ezarritako babesa urratzen, izen-abizenak, NAN zenbakia eta lizentzia-zenbakia zerrendatzen dituztenean. Federazioek ardura hartu behar dute datu horiek ez daitezen luze-zabal hedatu. Hau da, erroldara jo ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:
  - Idatzita badago, federazioaren egoitzan egotea eta lizentzien titularrei edo pertsona juridiko federatuen ordezkariei bakarrik ematea hura atzitzeko aukera.
  - Sarean badago, sarbidea murriztua izatea, hirugarrenek ez dezaten ikusi edo miatu.
  - Behin prozesua burututa, ezingo dira jendaurrean mantendu.

Hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko funtzio publikoa birpentsatzea

- Saioetan, Agindua aldatzeari buruzko eztabaida piztu zen, hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko funtzio publikoa, eta, ondorioz, Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen esku-hartzea birpentsatzeari dagokionez.

- Aipatutako saioetan, jakinarazi zen ezin dela Agindua aldatu, funtzio publikotzat ezarri zelako Euskal Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 25. artikuluan.

Agintaldiak mugatzea

- Saioetan, proposatu zen Agindua aldatzea kirol-federazioetako lehendakarien agintaldia mugatzeko.

- Egiaztatu zen ezin dela Agindua aldatu, agintaldien araubidea maila handiagoko arau batean dagoelako jada, 16/2006 Dekretuan, alegia.

- Askotariko iritziak eta argudioak daudela ikusita, proposamena izan zen federazio bakoitzak egokien deritzen irizpidea har dezatela, barne-arauketa ezartzea askea baita.

Pertsona bakarreko organoa ezabatzea
Federazio presidentzialista

- Egindako beste proposamenetako bat izan zen Agindutik kentzea kirol-federazioak pertsona bakarreko administrazio-organoa edo organo presidentzialista izateko aukera.

- Alabaina, baieztatu zen ezin dela Aginduan formula presidentzialista mugatu, xedapen hori 16/2006 Dekretuan arautzen delako.

Lurralde-federazioen eta euskal federazioen hauteskunde-prozesu burujabeak ezartzea

- Beste iradokizunetako izan zen Agindua aldatzea lurralde-federazioen eta euskal federazioen hauteskunde-prozesuak burujabeak izan daitezen, Espainiako eta autonomietako kirol-federazioen prozesuetan gertatzen den bezala, besteak beste.

- Aitzitik, saioetan agerian geratu zen ezin dela Agindua aldatu, hori 16/2006 Dekretuan araututa dagoelako.

Kirolariei kirol-jarduera esanguratsua eskatzea

- Saioetako beste proposamenetako bat izan zen Agindua aldatzea kirolarien, teknikarien eta epaileen estamentuei kirol-jarduera esanguratsuaren baldintza eskatzeko.

- Hala ere, saioetan azpimarratu zen ezin dela gai hori Aginduaren berrikuspen batean jorratu, Dekretuan inplizituki araututa baitago. Izan ere, Dekretuak ezartzen du klubei bakarrik eska dakiekeela baldintza hori betetzea.

Zer gertatzen da lurralde-federazio bat edo bi existitzen ez direnean?

- Ez dago aldatzeko ezer, Dekretuaren xedapenek ebazten dutelako.

- Lurraldeetakoek ez dute ordezkaririk:
  - Lurralde-federaziorik ez dagoenean
  - Euskal federazioa eta lurralde-federazioa eratzen denean eta hauteskunde-prozesua ez denean amaitu

Federazioen kirolari-estamentuen ordezkaritza ezabatzea

- Saioetan proposatutako beste gauzetako bat izan zen Agindua aldatzea kirolarien estamentuek ez dezaten batzar orokorretan ordezkaririk izan.

- Aitzitik, saioetan argitu zen ezinezkoa dela, estamentuaren araubidea eta kirolarien federazioen eskubideak 14/1998 Legean araututa daudelako.

Hauteskunde Batzarraren aktak idazkariak soilik sinatzeko aukera

- Saioetan proposatu zen Agindua aldatzea ez dadin beharrezkoa izan federazioen hauteskunde-batzarren kide guztiek sinatzea.

- Saioetan jakinarazi zen ez dela beharrezkoa Agindua aldatzea, Aginduaren 15.7. artikuluak xehetasunez arautzen duelako aukera hori:
  - Batzarrak posta elektroniko, fax eta abarren bidez har ditzake erabakiak, kideek bertaratu behar izan gabe.
  - Idazkariak idatz ditzake aktak, baina dokumentuak erantsi behar dizkie.
  - Kasu horietan, nahikoa da idazkariak soilik sinatzearekin.

Hauteskunde-justiziako organo bat sortzea kargua uzten duen

- Saioetan, halaber, proposatu zen Agindua aldatzea errekurtsoak azkar ebatziko dituen hauteskunde-justiziako organo bat sor zedin, hauteskundeei buruzko errekurtsoen ebazpena ez luzatzeko.

- Alabaina, ezinezkoa da hori, 14/1998 Legeak arautzen dituelako Hauteskunde Batzarraren erabakiak eta erabaki horien kontrako errekurtsoak, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari eta ondoren Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari aurkezten zaizkienak barne.

- Saioetan iradoki zen aukera bat arautzea, berariaz eta ezohiko moduan. Honako honetan oinarri liteke:
  - Hauteskunde Batzarrean aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jartzeko beharra ezabatzea.
  - Kirol Justiziako Euskal Batzordearen barruan sekzio bat sortzea auziak epe oso laburretan ebazteko, ezohiko prozedura laburtu bidez. Aitzitik, **aukera hori gauzatzeko, urriaren 18ko 310/2005 Dekretua aldatu behar da.**

Lehendakariak edo Batzarrak hartutako erabakiak ebazteko

- Egindako saioetan azpimarratu zen, egungo sistemak onartzen duela euskal federazioen hauteskunde-prozesua urtarrilean edo beranduago amaitzea, eta, ondorioz, aurreko administrazio-organoak proposatzen dituela aurrekontua eta egutegia. Askotan, aurreko administrazioak hartutako erabakiek zuzendaritza berria mugatzen dute.

- Hala ere, saioetan argitu zen indarreko Aginduak jarduneko administrazio-organoen jarduera-eremua murrizten duela, eta, beraz, federazioa “administratzeko eta kudeatzeko ekintza arruntak baino ezin dituztela egin” eta ezin dutela esparru hori gainditzen dituzten neurriak hartu, behar bezala egiaztatutako premiazko kasuetan salbu.

Testu honetan jaso ez diren gaiak

- Saioetan zehar eta ekarpen idatzien bidez, beste zenbait gai mahaigaineratu ziren, eta, gai berezituak zirenez —hau da, orokortasunetik kanpo zeudenez (modu abstraktuan ere federazio biri edo gehiagori eragiten zietelako)—, ez dira dokumentu honetan jaso.